




70 Quincena Musical de San Sebastián  
Donostiako Musika Hamabostaldia



Victoria Eugenia Antzokia



## “Laboaren Munduak”



8

Agosto  
2009  
Abuztua

Larunbata  
Sábado  
20:30

Victoria Eugenia  
Antzokia

Teatro  
Victoria Eugenia

## “Laboaren Munduak”

Jornada-homenaje a Mikel Laboa (1934-2008)

**Josetxo Silguero**, zuzendaritza artistikoa eta saxofoa  
**Iñaki Salvador**, pianoa eta akordeoia  
**Bernardo Atxaga**, irakurlea  
**Ruper Ordorika**, ahotsa  
**Iker Muguruza, Pello de la Cruz**, txalaparta  
**Mari Cruz Irazabal**, eszena zuzendaria  
**Javier Larreina**, eszenografía  
**Javier Ulla**, argiztapena  
**Jean Phocas**, sonorizazioa  
**Borja Ramos, Espe Goikolea**, irudiak  
**Juan Gorriti**, eskulturak  
**Virginia Flórez**, produkzio ejekutiboa

**IMANOL URIBE (1950-)**

“HAIKA MUTIL” (1997)  
Proyección de película

*transición sin descanso*

**RUPER ORDORIKA (1956-)**

SEKULABELARDIKO KANTARIA

**JOHN CAGE (1912-1992)**

4'33

**BERNARDO ATXAGA - MIKEL LABOA**  
ORDUAN

**MIKEL LABOA**

BAGA-BIGA-HIGA 2 (Arreglo: Iñaki Salvador)

**BERNARDO ATXAGA (1951-)**

LABOAREN EGUNAK ETA LANAK

**THELONIOS MONK (1917-1982)**

ROUND' ABOUT MIDNIGHT  
(Arreglo: Iñaki Salvador)

**BERNARDO ATXAGA - MIKEL LABOA**  
GALDERAK II

**MIKEL LABOA - BERTOLT BRECHT**  
(1898-1956)

GABERAKO ATERBEA (Arreglo: Iñaki  
Salvador)

El concierto finalizará  
aproximadamente a las 21:45

Babeslea / Patrocinia





Josetxo Silguero. © Sergio Díez.

### **Josetxo Silguero**

Lehenik eta behin, musika garaikidearekin konprometitua den artista da. Esperientzia eta jakin-min handiko interpretea da (musika sinfonikoa, ganbera-musika, bakarlaria, opera, musika elektronikoa, jazz), saxofoi bakarlaria da Euskadiko Orkestra Sinfonikoan, musika garaikideko hainbat taldetan parte hartzen du (Proyecto Guerrero, Espacio Sinkro, Krater), eta hainbat talde sortu ditu (Aksax, Oiasso Novis eta Sigma Project). Estreinaldiak eta musika-proiektuak aurkeztu ditu Alemanian, Frantzian, Eslovenian, Inglaterran, Italian, Suitzan, Kanadan, Argentinan, Txilen eta Perun, eta baita jaialdi eta ziklo nazional garrantzitsuenetan ere. Gaur egungo musikarekin konprometitua, modu berezian sustatu du lan berrien sorkuntza (Erkoreka, De la Torre, Gerenabarrena, Lauzurica, Lazcano, Ramos, Eslava, Alarcón, del Cerro, Posadas...). Musika elektroakustikoarekin egindako lanaren emaitza gisa, 40 lan baino gehiago estrenatu ditu, zeinetan saxofoiak elkarlanean diharduen baliabide informatikoekin, musika espazializatzeko sistemekin eta bideo-sorkuntzarekin. 1987an harreman emankorra hasi zuen Mikel Laboarekin, bai musikaren alorrean bai alor pertsonalean, eta haren kontzertuetan zein diskoen grabazioetan parte hartu du.

Es, ante todo, un artista comprometido con la creación musical contemporánea. Intérprete de amplia experiencia y curiosidad musical (sinfónica, de cámara, solista, ópera, electrónica, jazz), es solista de saxofón de la Orquesta Sinfónica de Euskadi, colaborador en diferentes ensambles de música contemporánea (Proyecto Guerrero, Espacio Sinkro, Krater) y fundador de agrupaciones como Aksax, Oiasso Novis y Sigma Project. Ha presentado estrenos y proyectos sonoros en Alemania, Francia, Eslovenia, Inglaterra, Italia, Suiza, Canadá, Argentina, Chile y Perú, así como en los más importantes festivales y ciclos nacionales. Comprometido con la música actual, ha estimulado la creación de nuevas obras dedicadas a él (Erkoreka, De la Torre, Gerenabarrena, Lauzurica, Lazcano, Ramos, Eslava, Alarcón, del Cerro, Posadas...). De su especial dedicación a la música electroacústica ha surgido el estreno de más de 40 obras en las que el saxofón interactúa con los nuevos medios informáticos, sistemas de espacialización sonora y videocreación. En 1987 comienza una fructífera relación musical y personal con Mikel Laboa, participando tanto en sus conciertos como en sus grabaciones discográficas.



## LABOAREN MUNDUAK

*Un vuelo por los mundos artísticos de Mikel Laboa (1934-2008)*

TEATRO VICTORIA EUGENIA, DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN  
8 AGOSTO 2009

“**Laboaren Munduak**” kontzertuarekin burutuko da “**Laboaren Munduak. Hegaldi bat Mikel Laboaren mundu artistikoetatik**” proposamena, iragan abenduaren 1ean zendo zen Mikel Laboa euskal artista handiari egun osoko omenaldia eskaini nahi izan diona. Laboaren eta Hamabostaldiaren artekoharremana sakona izan zen, eta zintzoa. 1999an sendotu zen harreman hori. Mikel Laboak urte hartan Hamabostaldian parte hartu zuen, Victoria Eugenia Antzokian Euskal Herriko Gazte Orkestrarekin eta Donostiako Orfeoiarekin aritu zen. Mikel Laboari eskainitako omenaldia izan zen, eta aski kontzertu berezia, zirraragarria, eta Laboaren ibilbidean garrantzitsua,

“**Gernika-Zuzenean II**” diskoan jasoa geratu baitzen. Horregatik, esker ona eta miresmena erakutsi nahian, Hamabostaldiak musikaz eta irudiz osatutako proposamen hau egin du, zeinean hainbat alor kreatibok bat egingo duten artista handia gogoratzeko.

“**Laboaren Munduak**” kontzertua **Josetxo Silguero** bururatu du, Musika Hamabostaldiaren eskariz. Ikuskizunean Mikel Laboa gertuko zutenhainbat artistak hartuko dute parte, haren lankide izan zirenak, eta biziki estimatu zutenak. **Iñaki Salvador, Bernardo Atxagaeta Ruper Ordorika** agertuko dira oholtzan, beste hainbaten artean. Kontzertuaren lehen zatian Mikel Laboari buruz Imanol Uribek 1997an egindako filma eskainiko da, “Haika Mutil”. Ondoren, Mikel Laboaren hainbat abesti eskainiko dira, eta hark zinez miresten zituen musikarienak, Thelonious Monk eta John Cagenak, tartean.

### **Erakusketa: Sala Club-Victoria Eugenia Antzokia**

Ordutegia: 11.00-14.00etara / 17.00-21.00etara

Gerturatzen den publikoak, Mikel Laboaren zenbait obren selekzio edo lagina izango du (koadro, diskografia, argazkiak, dokumentalak).

---

Euskal Sortzaileak  
Produkzioa: EITB  
Urtea: 1997  
Iraupena: 26'40"

Gernika  
Produkzioa: TV Sueca  
Urtea: 1977  
Iraupena: 6'50"

Lluís Llach-i elkarrizketa  
Produkzioa: ELKAR  
Urtea: 2009  
Iraupena: 20'30"

Laboa Irudietan  
Produkzioa: Marisol Bastida  
Urtea: 2009  
Iraupena: 5'40"

---



## LABOAREN MUNDUAK

*Un vuelo por los mundos artísticos de Mikel Laboa (1934-2008)*

TEATRO VICTORIA EUGENIA, DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN  
8 AGOSTO 2009

La relación de amistad Quincena-Laboa fue sincera y profunda, fraguándose ya desde 1999, año en que Laboa fue homenajeado por el festival. Aquel especial y emotivo concierto, realizado en el Teatro Victoria Eugenia, quedó plasmado en el disco "Gernika-Zuzenean II".

Como muestra de agradecimiento, admiración y respeto, la 70 Quincena Musical de San Sebastián incluye en su programación "**Laboaren Munduak**", una Jornada-Homenaje dedicada a Mikel Laboa. Se trata de una propuesta músico-visual concebida por Josetxo Silguero Gorriti por invitación de la Quincena Musical.

"**Laboaren Munduak**" se compone de tres actividades diferentes y complementarias (exposición-mesa redonda-concierto) con el ánimo de dar a conocer un poco mejor la trayectoria de este creador vasco, para que su espíritu creativo perviva reivindicando al artista que rompió fronteras.

### **Exposición: Sala Club-Teatro Victoria Eugenia.**

Horario: 11-14h / 17-21h

El público podrá ver una selección de obras (cuadros, programas, discografía, fotografías, documentales) en torno a las inquietudes artísticas de Mikel Laboa.

---

Creadores Vascos  
Producción: EITB  
Año: 1997  
Duración: 26'40"

Gernika  
Producción: Televisión Sueca  
Año: 1977  
Duración: 6'50"

Entrevista a Lluís Llach  
Producción: ELKAR  
Año: 2009  
Duración: 20'30"

Laboa en imágenes  
Producción: Marisol Bastida  
Año: 2009  
Duración: 5'40"

---